

Aldaketak Osasun Aseguruan

Hitzarmen-aurreakordioan hobekuntzak sartzen dira Kutxabankeko plantillako kolektiboen arteko homologazio ekonomikoan aurrera egiteko. Jatorriaren arabera, aldaketek modu desberdinean eragingo digute.

- **Kutxa eta Vital jatorriko langileek honako hauen artean aukeratu ahal izango dute:**
 - “KutxaCAS” sisteman aseguratuta jarraitzea (edo, ez badaude, alta eskatzea) eta aseguratutako langile eta seme-alaba bakoitzeko diru-laguntza jasotzea.
 - Kutxabanke kontratatutako eta ordaindutako aseguruia aukeratu (eskaera egin ahal izateko data zehaztu gabe dago).
 - Diru-laguntza eskatzea beste osasun-aseguru bat kontratatuta balute.
- Cajasur jatorriko langileak aseguratutako seme-alabengatik diru-laguntza bat jasotzen hasiko dira.
- BBK jatorriko edo Kutxabanken zuzenean sartutako langileek orain arte bezala jarraituko dute “Kutxabank” sisteman.



Zer ezaugarri dituzte Kutxa eta Vital jatorriko langileek eskaintzen dituzten aukerak?

Kutxa eta Vital jatorrikoen aukerak

	 kutxabank		Banakako osasun-aseguruia
Finantzaketa	Langile aktiboari oinarrizko poliza ordaintzea . Urtean 120€ sartuko dira nominan 25 urtera arteko seme-alaba aseguratuentzat.	Langile aktiboari bankuak kontratatutako polizaren kostuaren zenbateko bera sartzea nominan . Urtean 120€ sartuko dira nominan 25 urtera arteko seme-alaba aseguratuentzat.	Langile aktiboari bankuak kontratatutako polizaren kostuaren zenbateko bera sartzea nominan . Urtean 120€ sartuko dira nominan 25 urtera arteko seme-alaba aseguratuentzat.
Estaldurak	Bankuak erabakitzen dituenak.	Bazkideek negoziatu eta erabakitzen dituztenak.	Kontratatzen den aseguruarenak.
Koordinaketak	Gaur egun, bai.	Gaur egun, ez.	Kontratatzen den aseguruaren arabera.
Enpresa hornitzailea (gaur egun)	  SegurCaixa		Kontratatzen dena.
Produktua	Bankuak IMQ klasikoa ordaintzen du, urdinaren antzekoa. Enplegatuak “IMQ Urrea” kontrata dezake aldea ordainduta.	Premium poliza, gastuen itzulketa barne. 	Kontratatzen dena.

Laburpena

Bankuaren osasun-aseguruan, enpresak aukeratzen ditu estaldurak. Egungo poliza IMQren oinarritzkoa da, koordinaketekin, eta Urrea poliza nahi duten aseguratuek aldea ordaindu behar dute. KutxaCASen egungo poliza osoagoa da, eta, beraz, oinarritzko IMQ baino garestiagoa.



Osasun-aseguruaren erregulazio berriak hainbat zalantza sortu ditu, eta horiek argitzen saiatuko gara. Hemen aurkitzen ez duzun galderaren bat baduzu, jar zaitez gurekin harremanetan, konpontzen saiatzeko.



KUTXA / VITAL JATORRIA

KutxaCASen aseguratuta banago...

Zerbait egin behar dut jarraitzeko?

Ez, KutxaCASen aseguratutako pertsonak berdin jarraitzen dute baja eskatzen ez badute.

Zein da KutxaCASen ordaindu beharreko kuota?

Urteko kuotak hemen daude argitaratuta: Nire gunea / Gizarte onurak / Zerbitzu medikoa KutxaCAS (oraingoz, Kutxa jatorrizko plantillarako baino ez dago eskuragarri).

Nominan kuota kobratzen jarraituko didate?

Bai, kobratzeko modua ez da aldatzen.

Zer egin behar dut nire aseguruagatik dirulaguntza ordain diezadaten?

Ezer ere ez, KutxaCASen jardunean dauden langileei zuzenean nominan ordainduko zaie dirulaguntza.

Noiz hasten da diru-laguntza kobratzen? Eta zenbatekoa da?

Zehazteke dago, baina urtariletik aurrera ordainduko da. Oraindik ez digute zenbateko zehatzaren berri eman, 44€ inguru izango dira (KBk pertsona bakoitzeko ordaintzen duena IMQ/Adeslas polizan).

Eta KutxaCASena ez den beste aseguru bat badut edo kontratatzen badut?

Oraindik ez dago zehaztuta diru-laguntza eskatzeko sistema, ezta noiz hasiko den kobratzen ere, baina urtarilaren lean izango du eragina.

Eta seme-alabei dagokienez...

Nahitaezkoa da nire seme-alabak urtean 120 €-ko laguntza jasotzeko aseguratuta egotea edo faktura medikoak aurkez ditzaket?

Nahitaezkoa da seme-alabak aseguratuta izatea laguntza jasotzeko, ez baita faktura mediko partikularrik ordainduko.

Noiz hasiko gara kobratzen?

Printzipioz, ordainketa urtea amaituta egitea aurreikusten da.

Noiz arte kobratzen da laguntza seme-alaben aseguruagatik?

25 urtera arte.

Nola eskatu behar dut?

Oraindik ez dago zehaztuta. KutxaCASen kasuan, PKtik eskatuko dugu ordainketa aldeztu aurreko eskaerarik gabe egitea.

Eta nahiago badut IMQ/Adeslas poliza kontratatatu...

Non aurki ditzaket IMQ/Adeslas polizen baldintzak?

Informazioa oraindik ez dago eskuragarri, baina denbora nahikoarekin izango dugu erabaki bat hartzeko.

Noiztik aurrera eska dezaket IMQ/Adeslasera aldatzea? Nola egin behar dut?

Oraindik ez dago zehaztuta.

Eta zenbat kostatuko zait? Eta nire familiarena?

Kutxabankek bere gain hartzen du jarduneko langilearen kostua. Bikoteen eta seme-alaben aseguruaren kostua ez dago erabilgarri oraindik.

Eta nire seme-alabengatik laguntza jasoko dut?

Bai, aukeratutako aseguru edozein dela ere.

Zein da aseguruengatik diru-laguntzen zerga-eragina?

Diruzko diru-laguntzek PFEZn ordaintzen dituzte zergak. Kutxabankek poliza ordaintzen badu (IMQ/Adeslas sistema), gauzazko ordainsari bat sortzen da (eremu komunean 500€-raino zerga ordaintzetik salbuetsita dago pertsona bakoitzeko).

Aurre-jubilatuta nago, laguntzak dagozkit?

Bai, bai zurea eta bai zure seme-alabena.



CAJASUR JATORRIA

Zertan aldatzen da nire egoera aseguru medikoari dagokionez?

Aktiboan dagoen plantillaren erregulazioa ez da aldatzen. Seme-alaben estaldura handitzen da: osasun-poliza batean aseguratuta egonez gero, 120 €-ko laguntza jasoko da urtean.



BBK-KUTXABANK JATORRIA

Zer aldatzen dit hitzarmenaren erregulazio berriak?

Kasu honetan, erregulazioa ez da aldatzen.

Nire kontura aseguru bat kontrata dezaket edo KutxaCASi atxiki eta laguntza eska dezaket?

Hitzarmenean ez da jasotzen diru-laguntza eskatzeko aukera, beste aseguru bat kontratatzea erabakitzen bada.

Galderen atal hau eguneratuta edukiko dugu hurrengo QRan

